

ZIBER-ESKUBIDEAK

Egonline¹**Helburuak:**

- Ezagutu ditzagun prebentzio-neurri eta aholku batzuk sarea ondo erabiltzeko.
- Ezagutu ditzagun zibereskubideak.
- Azter ditzagun gure gizartean saretik egiten diren abusu eta jazarpen benetako batzuk.

Denbora: 45 min**Nola egin:**

Gela lau taldetan banatu eta taldeak bata bestetik aparte jarri. Talde bakoitzak hiru zerrenda izango ditu: umeen zibereskubideen zerrenda; eta teknologia berrien inguruko prebentzio-neurriena; eta aholkuen zerrenda. Talde bakoitzak prentsa-txosten bat ere izango du, hainbat albistekin (eranskinean erantsita dago).

Hau egin behar dute: talde bakoitzak, lehenik, zibereskubideak eta prebentzio eta aholkuen zerrendak irakurri behar ditu; eta, ondoren, begiratu behar du -eta idatziz jaso- ea, albisteetan irakurtzen dituzten urraketatik, zeintzuk gertatzen diren beren hurbileko errealitatean.

Amaitu ahala, emaitzak bateratzeko ahalegina egin behar dute lau taldeek: zer urraketak topatu dituzten, eta albiste bakoitzeko kasu bakoitzean zer egin beharko litzatekeen prebentzio modura eta zer okerra zuzentzeko. Orain, jarduera aztertzeke unea iritsi da. Irakasleen galderak baliatuko ditugu horretarako.

I. eranskina: Jarduera aztertzeke jarraibideak.

II. eranskina: Prebentzioak eta aholkuak

III. eranskina: UNICEF dekalogo

IV. eranskina: Adingabeak beldurrez behartzen zituen ziberjazarlea

V. eranskina: Adingabeek sareari buruz dituzten uste okerrak

VI. eranskina: Guardia Zibilak sextinga antzeman du 12 urteko neska baten inguruan

VII. eranskina: Bi nerabe atxilotu dituzte sexting-kasu batean inplikaturik.

¹ Egonline Gida pedagogiko hau da teknologia berrietan nola hezi lantzeko. Egokitua